

PROIEKTU GARAPENA

Egilea_*Alazne García Ocina*
Zuzendaria_*Ezekiel Collantes Gabella*
Data_*2019.06.25*
Master Habilitante_*DAGET_2018/2019*

MUGAK HAUSTEN

*Inmigranteentzako partaidetza
eta integrazio zentroa
Vitoria-Gasteiz*

► AURKIBIDEA ◀


0. LABURPENA.....	01
1. DIAGNOSIA	
1.1. ETORKINEN EGOERA	
1.1.1. DIASPORA PLANOA - MUNDUA	03
1.1.2. MIGRAZIO FLUXUAK - EUROPA	04
1.1.3. EUSKADI.....	05
1.2. KOKAPENA	
1.2.1. VITORIA-GASTEIZ	06
1.2.2. AUZOZ AUZO	07
1.2.3. EREMUA	08
1.2.4. ARGAZKIAK I	09
1.2.5. ARGAZKIAK II	10
1.3. ONDORIOAK	
1.3.1. AMIA	11
2. HIRIGINTZA	
2.1. ARAUDIA	
2.2.1. PERI 7	13
2.2. ESTRATEGIA	
2.2.2. IRIZPIDE ETA JARRAIBIDEAK	14
3. PROIEKTUA	
3.1. HELBURUA	
3.1.1. ETORKINEN EBOLUZIOA	16
3.1.2. PROGRAMA ETA GEOMETRIA	17
3.2. ATMOSFERAK	
3.2.1. BOLUMENA	18
3.2.2. LA MUSIKA IBILBIDEA	19
3.2.3. HEGOALDEKO SARRERA	20
3.2.4. TAILERRAK	21
3.2.5. BULEGO-IKASGELA-BIZITEGIA	22
4. PLANOAK	
4.1. KOKAPENA	
4.1.1. VITORIA-GASTEIZ e:1-10000	24
4.1.2. KOKAPEN OROKORRA e:1-1500	25
4.1.2. ANTOLAKETA OROKORRA e:1-500	26
4.2. ALTXAERAK OROKORRAK	
4.2.1. HEGOALDE ALTXAERA e:1-500	27
4.2.2. EKIALDE ALTXAERA e:1-500	28
4.3. OINAK	
4.3.1. BEHE SOLAIRUA e:1-250	29
4.3.2. LEHEN SOLAIRUA e:1-250	30
4.3.3. BIGARREN SOLAIRUA e:1-250	31
4.3.4. HIRUGARREN SOLAIRUA e:1-250	32
4.3.5. LURPEKO SOLAIRUA e:1-250	33
4.4. E-M EBAKETAK ETA ALTXAERAK	
4.4.1. HEGO ALTXAERA e:1-250	34
4.4.2. EBAKETA I e:1-250	35
4.4.3. EBAKETA II e:1-250	36
4.4.4. EBAKETA III e:1-250	37
4.4.5. EBAKETA IV e:1-250	38
4.4.6. EBAKETA V e:1-250	39
4.4.7. EBAKETA VI e:1-250	40
4.4.8. EBAKETA VII e:1-250	41
4.4.9. EBAKETA VIII e:1-250	42
4.4.10. EBAKETA IX e:1-250	43
4.5. I-H EBAKETAK ETA ALTXAERAK	
4.5.1. EKIALDE ALTXAERA e:1-250	44
4.5.2. EBAKETA I e:1-250	45
4.5.3. MENDEBALDE ALTXAERA e:1-250	46

► NON ◀

MUGAK HAUSTEN proiektua Euskadiko hiriburuan kokatzen da, Vitoria-Gasteizen.

Erdigunetik hurbil kokatzen da, Florida parkearen hegoaldean eta trenbide errailen iparraldean dagoen ekipamendura bideratutako orube batean hain zuzen ere. Gaur egun hutsik dago eta 5485m² dituen topografia lauean finkatzen da.

Inguruan gehienbat bizitegi erabilerara bideratutako eraikinak kokatzen dira, zenbati eraikin salbu. Ekialdean Zulueta jauregi neoklasikoaz mugatuta dago, hau parke batez inguratuta dagoelarik. Iparraldean, ordea, Gure Aita Kristau Elkarte monastegia eta eliza aurkitzen da. Azken honen atzealdeko partean lorategi pribatua dago, orubearekin 2m horma baten bitartez bat egiten duena.




► ZER ◀

Inmigranteei bideratutako partaidetza eta integrazio zentro bat da, non hiru erabilera desberdin bateratzen diren eraikin berri bakar batean: hezkuntza erabilera, administrazioa eta bizitegi publikoak.

Hezkuntza eta administrazio erabilerak batera funtzionatuko dute, biak publikoak baitira. Bizitegiak, ordea, nahiz eta eraikin berean bildu independenteak izango dira neurri batean.


Helburua, inmigranteek behar dituzten hasierako zerbitzuak eraikin bakar batean biltzea da, gaur egun hirian zerbitzu hauek hirian zehar sakabanatuta baitaude.



► ZERGATIK ◀

Azken urteotan, inmigranteen egoera larritu da Espainian. Gainera, gehienak iparraldera dihoazte aukera berrien edota Frantzia-Europa bidearen bila.

Euskadin inmigrante portzentaia pixkanaka handituz joan da, eta hiru hiriburu artean Arabak aurkitzen da biztanle-inmigrante portzentai handiena (%11.3). Gainera, beste probintzietan ez bezala, Arabako biztanleriaren %90-a hiriburuan biltzen da. Horrela, inmigrante gehienak ere bertan kokatzen dira. Beraz, egoera berri oni erantzuteko MUGAK HAUSTEN proiektua abian ipiniko da. Inmiteentzako pasozko eraikina bere bidea lasai jarraitu ahal izateko.



► NORI ◀

Laguntza behar duten inmigranteei zein herritari bideratutako proiektua da. Izan ere, inmigranteaz gain, biztanleriaren portzentai txiki batek ere laguntzak behar ditu hirian integratzeko edota lan aukera berriak aurkitzeko. Eta MUGAK HAUSTEN edozeini erantzun diezaioke.


Hortara, orkorrean beharrezkoak dituzten zerbitzuak eskeiniko zaie, hala nola, informazio eta orientazio baliabideak, laguntzak, behin behineko bizitegiak...




► NOLA ◀

Eremuaren azterketa egin ondoren bi faktore nagusi kontuan hartu dira. Alde batetik, ekialdeko Zulueta jauregi eta parkearen garrantzia kontuan hartuko da. Ondorioz, Zulueta jauregia errespetatzearen eta parkeari amaiera bat emateko eraikina orubearen mendebaldean ezarriko da.

Bestetik, orientazioak emandako abantailak aprobetxatuko dira, hegoaldera irekitzen den orubea baita. Horrela, eraikinaren geometriarekin jolastuz eguzkiaren sarrera ahalbidetu da eta aldi berean proiektuan kanpo espazioarekiko erlazioak sortarazi dira erabilera desberdinei bideratuta.





Immigrazioaren fenomenoak, hegoaldeko herrietatik iparraldeko herrialdeetara ematen denak, gero eta garrantzi handiagoa du gaur eguneko agenda politikoetan. Migrazio-prozesuak saihestezinak dira, baina, eragile guztien parte-hartzearekin, gizartearen garapenean aurrerapausoa eman daiteke, mugimendu horiek moldagarri bihurtzeko. Immigrazioa izango da zalantza gabe mende honetako eztabaidarik handienetako bat, eta beharrezkoa da egoera ahalik eta modu egokienean zuzentzea.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 13. artikulua zorrotz aplikatzen badugu, herrialde batetik bestera emigratzeko aske izan beharko luke gizakiak, baita herrialde bat zein bestean bizitokia aukeratzeko. Baina eskubide hori erabiltzeko eztabaida pizten du, batez ere etorkinak hartzen dituzten herrialdeetan.




Ekialdeko Europa eta Erdiguneko Asia inmigrante gehien dituzten zonaldeak dira, baita miigranteak jasotzen dituzte, baina ez neurri berean. Izan ere, honen arrazoia munduko fluxuen bidean kokatzen baita eta honek etengabeko joan etorriak sortarazten ditu.

Asiako hegoaldea eta Hego Amerikak ere inmigranteak izaten dituzte, hauen migrazio helmugak EEUU eta Europan daude. Alde batetik, gertutasunagatik eta bestetik hizkuntzagatik, hemen Espainiako helmuga nagusitzen da.


Hala ere, azken urteotan Europako inmigrante kopurua ikaragarri hasi da, gehienak Asiatik eta Afrikatik eratorriak. Hauei, errefuxiatuen kopuruak ere gehitu behar dira.



► MIGRAZIO FLUXUAK-2018 ◀




Iturria: OIM [Organización Internacional para las Migraciones]




Europako herrialdeetatik, Espainiako estatus mendeetan izan da etorkinen herrialdea, baina azken urteotan gorakada ikaragarria izan du eta gero eta atzerritar gehiago hartzen ditu. Greziarekin batera inmigrante gehien jasotzen dituzten herrialdeak dira. Hala ere, azken urtean Espainiak lehen postua hartzen du. Italia, etorkinak jasotzen dituen hirugarren herrialdea da, eta aurreko bietatik nahiko urrun aurkitzen da, Maltarekin parekatuta.

Espainiako bilakaera, herrialdeko autonomia-erkidego guztietan ikusten da, baina horietako bakoitzean, inmigranteen banaketa eta agerpena desberdina izan zen. Atzerritarrek Espainiako lurraldean duten banaketa ikusiz, *Euskadi Estatuko batez bestekotik behera kokatzen da, baina azken urtean gorakada handiena izan duena da.*



Iturria: INE [Instituto Nacional De Estadística]-2018-2019




► EUSKADI ◀

Aipatu bezala, EAEn, Estatuko beste erkidego batzuekin konparatuz, etorkin-populazioa oso txikia da. Gainera, populazio atzerritarren banaketan aniztasuna oso nabaria da. Modu honetan, etorkin-portzentaje txikiak dituzten eskualdeak (Ezkerraldea-Enkarterriak, Barnealde eta Gipuzkoa Mendebaldea), batz bestekoaren inguruan kokatzen direnak (Uribe Kosta eta Gipuzkoa Ekialdea) eta portzentaje hauen gainetik daudenak aurki daitezke (Gasteiz eta Bilbo).


Etorkinen lan-bilaketarako sektorerik egokienak eraikuntza, nekazaritza eta turismoa izaten dira. Sektore hauek, ordea, EAEn, beste erkidego batzuekin alderatuz, indar txikia daukate (herri honetako egitura ekonomiko bereziagatik), eta honek azalduko luke, besteak beste, EAeko etorkin-portzentaje txikia. Beraz, inmigranteen eskualde banaketa lan-esku behararen araberago ematen da.

Bilbo eta Uribe Kosta eskualdeetan, adibidez, zainketa pertsonalen inguruko lan-esku eskaera handiagoa izaten da. Horregatik, emakume latinoamerikararen presentzia handiagoa da aipatutako bi eskualde hauetan. Araban, aldiz, nekazaritzak indar handiagoa daukanez, gizonzkoek osatzen dute etorkinen gehiengoa. Hori dela eta, Araba, magrebtar gehien kokatzen den eskualdea da. Beste eskualdeei dagokienez, nahasketa eta oreka gehiago ematen da. Hala ere, etorkin-populazio gehiena hiririk handienetan (nagusiki 3 hiriburuetan) edo hauen inguruan kokatzen da. Oro har, Bilbo, Donostia eta Gasteizek atzerritar kopururik handienak biltzen dituzte zifra absolutu eta erlatiboetan.



Eskualde guztietan, oro har, jatorri eta nazionalitate nagusiak errepikatu egiten dira, zenbait kasutan ordena alda daitekeelarik. EAEn, populazio nagusia latinoamerikarra, eta horien artean, kolonbiarrak, ekuadortarrak eta boliviarrak nabarmentzen dira. Ondoren, eta orokorrean orden honetan, europarrak, afrikarrak eta asiarrak aurkitzen ditugu. Nazionalitaterik ugariak, besteak beste, portugaldarrak, errumaniarrak eta marokoarrak dira. Lehen aipatu bezala, nazionalitate eta jatorria lan-esku eta merkatuaren araberakoa izango da. Hala ere, Markinan eta Ondarroan salbuespena ematen da, bertan, etorkin- nazionalitaterik populatsuen senegaldarrenena da.

Iturria: "Inmigrazioa eta osasun arreta" EAEn ALBISTEA



Iturria: IKUSPEGI-2019

-SEXU ETA ADINA-ARABA-

Sexu	Adina	Kopurua	%
♀	0-15 urte	4.955	%24.5
	16-64 urte	14.925	%73.8
	+64 urte	343	%1.7
♂	0-15 urte	4.970	%25.4
	16-64 urte	14.420	%73.7
	+64 urte	177	%0.9


39.790

-NAZIONALITATEA-ARABA-

	TOTALA	
	Kopurua	%
UE 25	21.856	9,9
UE 28	17.025	7,7
UE guztia	38.881	17,6
Europa	8.620	3,9
Europa totala	47.501	21,5
Magreb	31.017	14,0
Beste Afrika	16.517	7,5
Afrika totala	47.534	21,5
EEUU eta Kanada	1.947	0,9
Latinoamerika	109.134	49,3
Amerika totala	111.081	50,2
Txina	5.673	2,6
Pakistan	4.995	2,3
Beste Asia	4.209	1,9
Asia totala	14.877	6,7
Ozeania	425	0,2
TOTALA	221.418	100,0


Iturria: IKUSPEGI-2019

-EUSKADI-




Bizkaia inmigrante gehien jasotzen duen probintzia da, baina hiru probintzien artean, desoreka handiena duena Araba da, Biztanle-etorkin proportzioari dagokionez.

-ARABA-



Araban, populazio gehiena hiriburuan biltzen da. Ez baitago Gipuzkoan eta Bizkaian bezalako herri handirik eta lan aukerak hirian biltzen dira.

-VITORIA-GASTEIZ UDALERRIA-



Araban nekazaritza eta industrian lan aukera gehienak biltzen da, eta honen ikasketa beharrezkoa da etorkinak Arabako beste eremuetara zabaltzeko, herri txikietan nekazaritza aritzen baita.

-VITORIA-GASTEIZ-




Proiektua, Inmigrantei bideratutako partidetza eta integrazio zentro bat da eta hau Vitoria-Gasteizko erdigunetik hurbil kokatuko da, Florida parkearen hegoaldean eta tren errailen iparraldean.

► AUZOZ AUZO ◀



AUZO	BIZTANLERIA	HEMENGOA	ATZERRITARRA
ALDE ZAHARRA	8.744	6.973	1.771
ZABALGUNEA	8408	7.752	656
LOBAINA	7.818	7.270	548
KORONAZIOA	12.341	9.972	2.369
EL PILAR	9.109	7.786	1.323
GAZALBIDE	2.222	2.109	113
TXAGORRITXU	7.925	7.249	676
SAN MARTIN	12.008	11.541	467
ZARAMAGA	12.106	10.252	1.854
ANGLO-VASCO	4.143	3.624	519
ARANTZABELA	1.462	1.371	91
SANTIAGO	3.381	3.155	226
ARANBIZKARRA	10.851	9.690	1.161
ARANA	3.075	2.538	537
DESAMPARADOS	6.064	5.489	575
JUDIMENDI	5.766	4.850	916
SANTA LUCIA	7.476	6.923	553
ADURTZA	6.117	5.372	745
SAN KRISTOBAL	5.783	5.148	635
MENDIZORROTZA	4.733	4.519	214
ARIZNABARRA	7.891	7.061	830
ALI-GOBEO	949	863	86
SANSOMENDI	20.769	19.185	1.584
ARRAIAGA-LAKUA	27.717	25.975	1.742
ABETXUKO	3.364	3.094	270
ZABALGANA	26.941	24.271	2.670
SALBURUA	18.899	17.330	1.569
ARETXABALETA	1.493	1.444	49
-GARDELEGUI			
TOTALA	252.571	227.532	25.039



► EREMUA ◀




Vitoria Gasteizek etorkinei bideratutako zerbitzuak ditu. Hala ere, planoan ikusten den moduan, nahiko sakabanatuak aurkitzen dira hirian zehar eta ondorioz hauek konzentratzea izango da proiektuaren helburuetako bat.



Gaur egun, Florida parkearen hegoaldean hutsik dagoen orube bat aurkitzen da. Aipatutako zerbitzu guztietatik hurbil, horrela, hauek bertara mugitzea izango da helmuga. Gainera, zerbitzuak hiriaren erdigunean mantenduko dira, bertatik hurbil aurkitzen baitira etorkin gehien dituzten auzoak.




- ① SERVICIO MUNICIPAL DE URGENCIAS SOCIALES
San Antonio kalea N°10
- ② ITZULPEN ZERBITUZA
Korreoz
- ③ HIZKUNTZA IKASKETAK
ADSIS-Pintoreria kalea N°27
BERAKAH-Las Escuelas kalea N°2
CÁRITAS DIOCESANAS DE VITORIA-Desamparados plaza 1
NORABIDE-Adriano VI kalea N°9
CEPA PAULO FREIRE-San Prudencio kalea s/n
INST. FORAL DE BIENESTAR SOCIAL-General álava kalea N°10
- ④ AHOLKU JURIDIKOA
GURUTZE GORRIA-Gaztelako Atea N°25
CEAR-Aldabe kalea N°7
- ⑤ GIZARTERATZEA
ZUZENEAN-Ramiro de Maeztu kalea N°10
- ⑥ LAGUNTZA SOZIALAK
Gizarte etxe guztietan
El Campillo
El Pilar
Iparralde
Judimendi
Hegoalde
Ariznabarra
Lakua
Abetxuko
Arriaga
Arana
Aldabe
Ibaiondo
Salburua
Zabalgana
- ⑦ LAN-GIZARTERATZEA
ADRA-Lorenzo Prestamero kalea N°3




► ARGAZKIAK I ◀



► ARGAZKIAK II ◀






-KANPO AUKERAK-

1. Gasteiz hiri multikulturala da. Bertan, etorkin nazionalitate desberdin ugari aurkitzen dira eta hiri osoan zehar sakabanatuta daude. Auzo batzuk beste batzuk baino etorkin gehiago dituzte, baina orokorrean nahiko orekatua dago demografia.
2. Eremuaren hurbiltasunean erdigunea dago, eta bertan jarduera kultural eta ekonomiko anitzak biltzen dira, baita gizartearen sozializazioa.
3. Hirian zehar mugikortasuna ezinhobea dago, eta antolaketa eroso da. Tranbia eta autobus azpiegiturak hirian zehar egoki funtzionatzen dute eta ekonomia aldetik bizikleta aukera alderdi oso positiboa da.

-BARNE INDARRAK-

1. Eremuan orientazio ona dago. Hegoaldera irekitzen den partzela da, inolako oztoporik gabe. Eta iparraldeko erikinek ipar-mendebaldeko haizeaz babesten du.
2. Oinezkotasunaren nagusitasuna azpimarratzeko da. Trafikoa mugatuta dago eta oinezko ibilbideak nagusitzen dira.
3. Inguruan parkea dago eta naturarekiko harremara lantzeko aukera. Bestalde, honek lasaitasuna eskeintzen du.



-KANPO MEHATXUAK-

1. Lan aukerak erdigunetik urrun aurkitzen dira. Fabrikak hiriburuaren perimetroan kokatzen dira. Bestalde, nekazaritza lan aukerak hiriburutik aldentzen dira eta Araban zehar sakabanatzeko beharra dago.
2. Bizitegi alokairuak garestiak dira.

-BARNE MEHATXUAK-

1. Partzelaren ipar eta ekialdea 2m-ko harrizko hormaz mugatuta dago eta inguruarekiko erlazio fisiko eta bisuala da.
2. Ekialdean Zulueta jauregi neoklasikoa aurkitzen da, gaur egun hutsik dagoena.
3. Hegoaldean trenbide aurkitzen da, eta nahiz eta partzelatik urrun kokatu zarata suposatzen du. Baita, estetika arazoak eta kutsadura. Hala ere, etorkizunean lurperatzeko asmoa dago.

Vitoria-Gasteiz proiektuaren gaia jasotzeko prestatuta dagoen hiria da. Izan ere, kultura aniztasuna biltzen du bere baitan eta sozializazio aukera ugari eskeintzen ditu. Honek, proiektuaren biziraupena ahalbidetzen du. Bestalde, bizitegi duina eskuratzeko arazoa programan garatzeko puntu garrantzitsua izango da, baita lan aukera desberdinak aztertu eta hauen hezkuntza eskeini.

Bestalde, kokapenaren egokitasuna dela eta oinezkotasun eta natura erlazioak landuko dira. Baita, orientazio aukera errentagarriak. Gainera, partzelaren inguruko mugak aztertu eta interbentzio aukera posible desberdinak kontuan hartuko dira geometria garatzerako orduan.

► PERI-7 ◀



Iturria: Vitoria-Gasteiz HAPO [Clasificación del suelo]

-KATASTROA-
Partzela: 1251
Poligonoa: 60
Azalera: 5485m²


-SAILKAPENA-
Hiri lurzorua



Iturria: Vitoria-Gasteiz HAPO [Clasificación global]

-KALIFIKAZIOA-
Gizarte ekipamendua

-ESPARRUA-
Antolamendu eta kudeaketa esparrua
Plan berezia
PERI 7-PORTAL DE CASTILLA SUR



Iturria: Vitoria-Gasteiz PERI 7

-AZALERAK

ES-ZV Espacio Libre-Zona Verde.....	10.655m ²
EQ-G Equipamiento Genérico.....	5.485m ²
ES-LI Espacio Libre.....	1.451m ²
CO-U Viario Local.....	2.864m ²
RE-OA Residencial.....	13.207m ²
	<hr/>
	33.662m ²

-PERI7 ESPARRU FITXA-

Kalifikazio orokorra:	SGEL 31,65%, SGEN 16,30%, Residencial 52,05%
Kalifikazio nagusia.....	Bizitegi kolektiboa
Lurzoru sailkapena.....	Hiri lurzorua
Azalera totala.....	33.662m ² s
Eraikigarritasun gordina.....	0,660m ² c/m ² s
Aprobexamendua.....	0,5849m ² ch/m ² s
Dentsitate gordina.....	57,33viv/ha
Garapen tresna: Plan Berezia/Konpentsazio Proiektua/Urbanizazio proiektua	
Aktuazio sistema.....	Konpentsazioa

-PERI7 HELBURUA-

El ámbito de la presente unidad de actuación se engloba dentro de lo que podemos denominar como zonas disgregadas sin colmatar de la trama urbana del ensanche de XIX.

La ordenación de las traseras comprendidas entre Portal de Castilla, vía del ferrocarril y primer tramo de la Senda es una antigua preocupación de la ciudad. Lo delicado del entorno y la dificultad de acceso restringen las posibilidades edificatorias pero, por otra parte, los usos primitivos han dejado de existir y en la actualidad aparecen los solares abandonados.

La introducción de una cantidad residencial discreta, la utilización de tipologías de escaso impacto ambiental y la consecución de un amplio espacio libre que podría constituirse como prolongación y desdoblamiento del actual Paseo de la Senda y parque de borde de acompañamiento al trazado del ferrocarril, serían los objetivos básicos de este PERI.

-ART.37 EKIPAMENDU PARTZELA-

Los parámetros descritos tanto para el régimen de edificación como para el de usos, se inspiran en la Sección 4ª de Texto Refundido del Plan General; "Uso de Equipamiento"

La edificación habrá de ajustarse a las siguientes condiciones particulares, regulando los demás aspectos a través del citado documento:

- Retranqueos: Estableciendo una separación mínima de 2/3 de su altura hasta el límite de su lindero colindante con todas las parcelas contiguas, y siendo esta distancia en ningún caso menor de 5ml. Del mismo modo, se establece una alineación máxima no superable en el frente Sur, de modo que se permita y potencie la visual continua desde la calle Lascaray hasta el Paseo de la Senda.
- Altura máxima: Hasta 15,5m medidos desde la rasante del suelo urbanizado hasta la parte superior de la cubierta terminada del edificio, o sus antepechos perimetrales y remate.
- Edificabilidad: Neta y máxima de 2m²c/m²s.
- Ocupación: Hasta un 75% del total de la parcela.

Eraikinaren altuera 15,5m-koa izanda retranqueoak betetzen direla bermatzen da, baita araututako altuera máximaoa. Eraikigarritasunari dagokionez, gehienezko azalera 10.970m²c-koa izango da, proiektuak 7.178m²c ditu eta okupazio portzentaia 32%-koa da.

Es importante señalar la posibilidad de no cerrar la parcela, haciendo que el edificio pueda "percibirse" sin obstáculos intermedios, como elemento autónomo, escultórico, y válido por sí mismo... tanto en su aspecto arquitectónico como en su autodefensa ante posibles inclemencias.

-PGOU EKIPAMENDU GENERIKOA-

En los planos de calificación pormenorizada se definen unas áreas de Equipamiento Genérico que pueden albergar cualquiera de los usos pormenorizados dentro del global de Equipamiento excepto el de espectáculos.

Dicha calificación normativa permite la utilización para cualquiera de dichos usos o para combinaciones de ellos, de la parcela de que se trate con independencia del uso que actualmente pueda tener.

-Asistencial: Actividades de uso público o colectivo destinadas a la información, orientación y prestación de servicios o ayudas sobre problemas relacionados con toxicomanías enfermedades crónicas o minusvalías, pobreza extrema y desprotección jurídica de las personas.

-Educativo: Actividades de uso público o colectivo destinadas a la enseñanza de todos los ciclos y especialidades excepto el universitario, incluso las actividades complementarias de investigación, custodia, administración, etc. y las de servicio directo, tales como comedores, cafeterías, etc.


Se incluyen en este uso a título de ejemplo los centros de preescolar, guarderías, EGB, BUP, FP, academias, educación compensatoria, educación especial, talleres ocupacionales, etc.

Eraikinaren erabilera konplexua da, baina Asistencial izaera duela esan daiteke, etorkinei zein hiritarrei laguntza eskeintzen baitaie. Hala ere, Hezkuntza izaera ere badauka, bertan ikaskuntza klaseak emango baitira. Beraz, bi hauen arteko konbinazioa dela esan daiteke, biak erabilera konpatibleak direlarik


► JARRAIBIDE ETA IRIZPIDEAK ◀



- 1 Zulueta jauregi neoklasikoa errespetatuko da, honi eman behar zaion espazioa eskeiniz.
- 2 Parkeari amaiera emango zaio, bertan dauden ibilbideak eraikineri bideratuz eta jarraipena emanez. Horrela, barne kanpo erlazioa sustatuko dira. Horretarako, gaur egun dagoen harrizko horma botako da, erlazio bisual eta fisikoa baita.



- 3 Mendebaldeko bizitegiei erantzungo zaie. Horretarako geometriaz baldintzatuko da, eraikineri antzeko neurriak eskeiniz eta altueran errespetatuz. Hortaz gain, bizitegiek markatzen duten amaierari erantzungo zaio proiektua partzelaren mendebaldean kokatuz.



- 4 Iparraldeko horma bota ezin denez, honen eta eraikinaren tarteko espazioari garrantzia emango zaio. Horrela desfragmentazio baten bitartez espazioen arteko loturak eta erlazioak landuko dira, barne konfigurazioak ahalbidetuta.

- 5 Gaur egun, trafikoaren presentzia txikia da. Soilik La musica ibilbidetik bizitegiertarako sotoko aparkalekuetara ahalbidetuta dago eta ez daude aparkalekurik urbanizazio mailan. Beraz, eremuan oinezkoari garrantzia ematen zaio eta proiektuak ez du irudi honekin apurtuko. Horrela, aurrekoarekin jarraituz ez dira kanpo aparkalekuak ezarriko, hauek eraikineko sotoan ezarriko baitira.

► ETORKINEN EBOLUZIOA ◀



-EBOLUZIOA-

Etorkinak Vitoria-Gasteizera iristen diren unetik aurrera ibilbide batean murgiltzen dira gizartean integratu arte. Izan ere, edozein pozesu migratorioan bezala, ibilbide honetan pertsonak eboluzioa jasaten dute eta fase desberdinak izaten dituzte momentuan dituzten sentipenengatik eta inguruko sozietatearekiko duten erlazioagatik. Gainera, normalena zailtasunak jasaten dituzte iritsi berriak direnean, hiri berrira egokitu behar direlako eta zaugarritasun sozial altua izaten dutelako.

Hortara, ibilbide honetan hiru bilakaera nagusi daude. Eta bakoitzean etorkina aurrerapauso nagusia ematen du hiri berrian integrazioa lortzeko.

-I EGONALDIA-

Hiri berrira iristean etorkina kultura desberdina aurkitzen du, baita hizkuntza, ohiturak, erlijioa eta espazio eta denbora pertzepzio desberdinak.

Orokorrean bakarrik ailegatzen diren pertsonak dira eta zailtasun handiak dituzte bizitegia aurkitzeko, ondorioz, gutxieneko bizigarritasun baldintzak bilatze dituzte. Gainera, lan kualifikazioa askotan baxua da eta lan aukerak gutxiagotzen dira, hortara, lan merkatuko bazterreko aktibitateetan aritzen dira.

Bestalde, hizkuntza ikasketa askotan beharrezkoa ikusten da eta administrazio papeleoa gauzatu beharra dago. Gainera, batzutan arazo mediko/sanitarioak eman daitezke, ez baitute estaldura egokirik.

-II EGONALDIA-

Egonaldi honen denbora iraupena ezin da mugatu, izan ere, luze iraun daitekeen denboraldia baita. Pixkanaka, etorkinak bere lan egoera egonkortzen du eta lan baldintzak hobetzen dira, eta onartzen dute beharrezkoa dela enplegu bat izatea gizartean murgiltzeko.

Bestalde, bizi kalitatea ere igotzen da, bizitegia alokatzeko baliabideak baititu, nahiz eta hiriko zonalde okerrean asentatu behar diren. Gainera, lehenengo familia elkartzeak emango dira, horrela, alokatzeko pisua konpartitzen hasten dira. Eta honek, pertsonaren soziabilizazioan eragiten du.


-III EGONALDIA-

Gizabanakoa iada autonomia dela esan daiteke, hau da, -16- integrazioa iritsi da. Horrela, inguruko mundura egokitu da, baina bere norbanakotasuna galdu gabe. Hau da, bere identitatea hirian egonkortu du.

-HELBURUA-

Eboluzioan zehar etorkinak lehenengo hilabetetan izaten ditu zailtasun gehienak. Ondorioz, beharrezkoa ikusten da, etorkin hauei bidea irekitzea eta laguntza eskeintzea, hau da, inmigranteentzako partadidetzak eta integrazio zentro bat sortzea da. Izan ere, hirian etorkinei bideratutako zerbitzuak daude, baina nahiko sakabanatuak aurkitzen dira hirian zehar. Beraz, proiektuaren helburu nagusia zerbitzu hauek eraikin bakar batean biltzea izango litzateke, MUGAK HAUSTEN zentroa sortuz.

► PROGRAMA ETA GEOMETRIA ◀




1 -IGAUR EGUNGO EGOERA-

Orubea gaur egun hutsik dago. Hala ere, kontuan hartuko dira inguruan dituen eraikinak eta ibilbideak. Horrela, bi ildo nagusi kontuan hartuko dira:

- Zulueta jauregia errespetatu eta parkeari amaiera eskeini
- Mendebaldeko bizitegi eraikinei erantzun


Zulueta jauregiarekiko harrizko horma botako da erlazio bisual eta fisikoak sortzeko eta parkeari jarraitasuna emango zaio. Horrela bi eraikinen (Zulueta eta proiektua) artean espazio sortzen da, jauregia arnasten utziz. Horrela proiektua partzelaren mendebaldean kokatuko da, iada existitzen den partzela sarrera mantenduz.



2 -ABIAPUNTUA-

Eraikinaren geometria programak sortzen du, hau da, erabilera desberdinen arteko erlazioak izango dira proiektuaren ildoak. Horrela, erabilera bakoitzaren eskakizunen arabera bolumenak sortzen dira, dimentsioak erabilerearen arabera egokituak.


Orubearen geometriari egokitzeko eta kanpo espazioarekiko harreman aberatsa lortzearen bolumenen arteko mugimendu jolas estratejiara jo da. Gainera, blokeak egituratzeko parketik datorren ardatzaz baliatuko da eta jarraipena emango zaio eraikinaren barnealdetik.



3 -BLOKEAK-


Proiektuaren tailer erabilera nagusietako bi beirazko blokeek kokapen estratejikoak izango dute. Izan ere, eremu hauetan gardentasuna eta argiztapen naturala bilatu da, baita inguruarekiko harremana. Gainera, erabilera kanpo espaziora bideratuta egongo dira.

Hezkuntza, administrazioa eta bizitegiak biltzen dituzten Corten altzairu akaberako bi bloke altuek aurretik aipatutako kanpo espazioak mugatuko dituzte, baita espazio berriak sortu. Horrela behe oinean, kafetegi eta sarrera espazioak sortuko dira. Materialtasunaren aldetik, natur-proiektu erlazioa lortzeko naturak duen etengabeko kolore kromatiko eta testurak irudikatu nahi izan dira. Horrela, Corten altzairuak berariaz duen kolore kromatikoengana jo da eraikinaren expresibitatea lortzeko.



4 -KONEXIOAK-

Bloke nagusien arteko komunikazio modura trantsizio elementuak egongo dira. Hau da, bertan ibilgailu zein oinezkoentzako sarrerak proposatzen dira. Bloke hauek ahalik eta opakoenak izango dira eta beharrezkoak diren hutsarteak soilik irekiko dira. Esan daiteke, elementu hauek Corten altzairuzko bi bloke nagusien euskarriak direla eta hori materialtasunean ere irudikatu nahi izan da, sendotasuna adieraziz. Izan ere, naturan bezalaxe lurra zuhaitzen euskarria da.



-PROGRAMA-


Aipatu bezala, hasierako hilabeteetan etorkinen galerak handiak dira eta hiru multzo nagustan sailkatu daitezke: bizitegi galera, administrazio beharrak eta hezkuntza sistema. Proiektuak, behar hauek beteko ditu:


A Alde batetik, administrazio tramite nagusiak bete ahal izateko bulegoak ezarriko dira. Etorkinari ahalik eta zalantza gehienak argitzeko asmoz eta eguneroko egoera desberdinen aurrian aholkuak emateko prest dauden pertsonak ezarriko dira. Gainera, beharrezko estaldura medikoa proposatzen da.

B Bestetik, bizitegi minimoak eskeiniko dira alokairu murriztu batekin. Horrela, gizabanakoari lasaitasuna emango zaio kultura eta hezkuntza berriari egokitzeko eta lan aukera desberdinak aztertzeko, ikasketak egiten dituen bitartean.

C Azkenik, lan prestakuntzarik gabe datozen pertsonen ikasketza programa eskeiniko zaie. Horretarako, ikasketza gelaz gain hiru tailer okupazional proposatzen dira Araban ematen diren lan eskaerak aztertuta:

- Mekanikoa: Arabako industria guneetan eskulangitza beharra dago.
- Nekazaritza: Lautadan lan aukera gehien aurkezten duen arloa da.
- Laguntza pertsonak: Behar bereziak dituzten pertsonen laguntza eskeintzeko tailerra da.





LA MUSIKA IBILBIDEA


► LA MUSIKA IBILBIDEA ◀



















► ANTOLAKETA OROKORRA ◀


E:1/500 0m 5m 10m 20m 40m




-27-



-28-







+4,25m



E:1/250







+8,50m



E:1/250






+11,75m




E:1/250

0m 2m 4m 8m 16m





► HEGO ALTXAERA ◀




PLANOAK_E-M EBAKETAK ETA ALTXAERAK




► EBAKETA I ◄

E:1/250 0m 2m 4m 8m 16m




PLANOAK_E-M EBAKETAK ETA ALTXAERAK

-35-





-36-

▶ EBAKETA II ◀




PLANOAK_E-M EBAKETAK ETA ALTXAERAK






-38-

► EBAKETA IV ◀




PLANOAK_E-M EBAKETAK ETA ALTXAERAK




► EBAKETA V ◀

E:1/250 0m 2m 4m 8m 16m



PLANOAK_E-M EBAKETAK ETA ALTXAERAK






+15,00m
 +11,75m
 +8,50m
 +4,25m
 +0,00m
 -3,50m

-41-


► EBAKETA VII ◀




PLANOAK E-M EBAKETAK ETA ALTXAERAK





-42-






-43-






-44-


► EKIALDE ALTXAERA ◄




PLANOAK_I-H EBAKETAK ETA ALTXAERAK



► EBAKETA I ◄




PLANOAK_I-H EBAKETAK ETA ALTXAERAK



-46-

► MENDEBALDE ALTXAERA ◀



PLANOAK_I-H EBAKETAK ETA ALTXAERAK